

Egilea: Mari Angeles Angoitia Goioaga
Milagros Egiguren Urkizu

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia 1992-XI-11

IKA-IBAIZABAL Argitaletxea
Zornotza (Euba) - Tnoa. 673 42 46
Legezko Gordailua: BI - 2.477 - 92
I. S. B. N. : 84 - 86.399 - 35 - 1
Inprimaketa: Igarri, S. C. L.

tokia izten deutsue indar adierazpenei, holan, zuhaitzetara igotzea, patinatzea, bizikletan ibiltzea, ... Gainera idazketaren teknika ere lortu lei orain.

V. PENTSAMENTUAREN EZAUGARRIAK

Piagetek dioenez, umearen adimenaren hazkunderako giltzarriak honeek dira: alde batetik, umeak berak inguruko gauzetan egiten dauan manipulazioa eta ekintza, eta bestetik, manipulazio hau zelan bihurtzen dauan "barru konstrukzioa", hau da bere buru barruan zelan sortzen dauan kanpoko munduari dagokion estruktura.

Umeak bere esperientziak "asimilatzen" ditu esperientzia honeek sortu dabezan iharduerekin batera. Aldi berean egoera eta objektuetara egokitzen doa, umeak bere frogan ezarri nahi deusiezan eskemak ez dabez errespetatzen eta, eta frogatzerakoan, gauza batzuek aldaketak ezartzen dabez estrukturetan.

Bitik lau edo bost urtera umeak munduaren bere barru eredua zabaldu eta aberastu egiten dau, landu, antolatu eta birrantolatu etengabe, bere afektibitate eta ihardueraren indarren menpean. Eta jolas imajinatiboaren bitartez egiten dau hau, azterketa eta esperientazio ugariagoen bidez, eta galdetuz, entzunez eta hitzeginez.

Gogoratzen eta imajinatzen dituan egoerak eta objektuak ugaritu egiten dira. Baina, bere pentsamentua ezin da une konkretu bakoitzeko egoeratik alden du galdu barik. Aurrean daukan errealitateak berak dituan eskemak baino konplexutasun handiagoa dau, horregatik errealitate hau formaz aldatzen dau asimilatzeke, honan munduaren irudikapen mugatu eta oso pertsonala lortuz oraindik (aurrekontzeptuak).

4-5 urtetik aurrera 7 urte bitarte (pentsamentu intuitiboa), umeak lehen baino hobeto obserbatzen dau (begiratzen dau) errealitatea eta irudikapenak pertzepzio eta ekintzetan oinarrituta dagoz. Errealitatea deformatzeak indarra galtzen dau eta errealitate hau modu jatorrago eta antzekoago batez irudikatzeak indarra hartzen dau. Hizkuntzaren laguntzaz umea astiro-astiro eraikuntza logikoak sortuz doa, eta aurrekontzeptuak zehatzagoak eta zabalagoak bihurtzen dira esperientzia konkretu eta hitzezko ugariaren bidez (bere gizarte hartuemonak bitarteko dirala).

Halan ere, adin honetako umeak dauan munduaren pentsamentua eta ikuspegia deformatuak dira oraindik; eta esan leiteke errealismo gehiegi gaitik dala, erreala bere ikuspegi konkretuan bakarrik dago eta.

Umeak ikusten dauana pentsatu baino ez dau egiten, eta bere pertzepzioaren datuak ez ditu gaingitzen. Esperientzia edo ekintza bat irudikatu lei eta barruratu, hartu dauan horretan pentsatu lei, baina esperientziak lehen zana izaten jarraitzen dau mundu konkretuan (bere pentsamentuak somatzen dau, eta horregaitik baieztatu lei, baina ez demostratu).

"Preoperatibo" (bitik zazpi urtera) deitutako aro honen amaieran, umeak sinboloak erabiltzeko gaitasun baldarra lortzen dau.

VI. HIZKUNTZAREN GARAPENA

Eboluzio aro honetan hizkuntzak hiru ezaugarri ditu:

- Iharduera guztiei laguntzen deutse. Umeak hitzeginez egiten ditu gauzak, egiten dabilena bere buruari kontatuz; bere hitzak ekintza adierazi eta ekintzari lagundu egiten deutso.

- Apurka-apurka, monologo hori barruratu eta isila bihurtzen da. Laster ekintzatik bereiziko da eta beharbada hau baino lehenago joango da eta berau bideratuko dau.
- Gizarte hartuemonetarako funtzioa betetzen dau. Umeak bere mezua ulertarazi nahi dau, baina laugarren urtearen hasiera bitarte ez dau lortzen benetako alkarrizketarik.
- Unibertsoaren eta norbanakoaren objetibazioari laguntzen deutso.

Aro honen hasieran, eta lau urte bitarte, umea “oinarrizko hizkuntza” jasotzen dabil oraindik, eta honen gainean joango da elementu konplexuagoak egokitzen.

Bi eta hiru urte bitartean hizkuntzaren benetako “eztanda” emoten da. Kantitateari dagokio hemen esaten dana (bi eta hiru urte bitartean umeak eguneroko gauzei buruzko oinarrizko hiztegia hartzen dauala uste da, 200etik 1000 hitz bitarte erabiltzeko gai dalarik), eta kalitate eta konplexutasunari dagokionez ere gauza bera esango geunke (esaldiak lehen baino luzeagoak dira, nahiz eta gramatikalki batzuetan gaizki erabili).

Urte bi eta urte bi t’erdiko bitarte horretan umeak aditzak infinitiboan erabiltzen ditu batez ere, eta ez ditu izenordeak erabiltzen, ezezkoa esateko aditzari “ez” bat pintzen deutso, eta lehenengo adjetiboak azaltzen hasten dira (handia, txikia, ...).

Urte bi t’erdi eta hiru urte bitartean azaltzen dira lehenengo izenordeak, umeak aditzak orainaldian eta aginteran erabiltzen ditu eta ezezko esaldiak eta galderazkoak hasten dira.

Izenordeak erabiltzen dituan neurrian umea bere irudi propioaren garapenaren erreferentzia emoten joango jaku.

“Ni” agertzeak bere garapeneko une oso garrantzitsua adierazten deusku. Hasieran, umeak zerbaiten beharra edo nahia adierazteko erabiltzen dau.

“Ni” hau era sortzailean eta egoera barrietan erabiltzen dauanean eta “Ni” eta “Zu” nahasketarik barik edo nahasketa gitxirekin erabiltzen dituanean, bere gaitasuna adierazten ari zaigu bere burua objektu legez irudikatzeko objektuen unibertso baten. Hau adimen eta ezagutza mailako ekintza bikain edo hazaña bat legez kontsideratzen da.

Hiru urte aldera, umea esaldi sinpleenak zuzen esateko gai da: izenordea edo izena eta aditza. Hizkuntzaren legeak aurkitzen dituanean umeak, ahaleginduz eta errakuntzak eginez, aurrerapen nabariak gertatuko zaizkio.

Hiru urte eta hiru urte t’erdi bitartean plurala azaltzen da, adberbio batzuk erabili leiz (gainean, gero), deklinabidea erabiltzen dau kasu batzuetan, aditzak geroaldian eta lehenaldian erabiltzen ditu, eta sarritan erabiltzen ditu noiz? eta zergaitik? galderak.

Zergaitik? honek informazioa batzeko eginkizun intelektuala dau, baina baita afektibitate mailako beste eginkizun bat ere: helduari lotzea, beronen arreta erakartzea, ziurtasuna aurkitzea, larritasuna baretzea, eta helduak ezarritako arauak eta ohiturak ezagutzea eta arakatzea.

Lau urterekin, esaldiak guztiz osatuaren itxura hartzen dau: umeak izenorde konplexuak erabiltzen ditu eta egoki erabiltzen ditu ezezko esaldiak.

Oinarrizko hizkuntza eskuratuz gero, umeak entzundako hizkuntza aztertzen jarraitzen dau eta erabilpena guztiz menperatu arte saioak egiten ibiltzen da. Honan, umearen hizkuntza osatzen joaten da hizkuntza egitura konplexuagoak bereganatuz.

Horregaitik, umeak ingurunetik jasotzen dituan hizkuntza eragin edo estimuluak zenbat eta hobeak eta garrantzizkoagoak izan, orduan eta erabakiorragoak izango dira umearen hizkuntza eskurapenean.

Lau eta bost urte bitartean, umeak aditzak modu aberatsago baten erabiltzen ditu.

Sei urterekin, esaldi konplexuak osatzen ditu eta aditzarekin akatsik ez dau egiten ia. Zerbait kontatzen dauanean, gertakizunei buruzko gauzarik funtsezkoenak esaten ditu, batzuetan ordena kronologikoan nahasten bada ere.

Bestalde, umearen mintzairaren ezaugarriak, adibidez astiro hitzegitea edo melodia oso espresiboa, galtzen joango dira denporaren poderioz.

VII. SOZIABILITATEA

Portaera sozialaren eboluziorako gauza bi izango dira guztiz garrantzizko. Bat munduari buruzko jakinmina, eta bestea, bere autonomia aurkitzea.

Hiru urterekin, umeak badau “besteen” iharduerarekiko sentsibiltatea, baina berearekin jarraitzen dau eta ez dau komunikatzeko ahaleginik egiten, ez dauka ihardueraren inolako antolakuntzarik eta.

Hasieran, “bestea” bere proiektuak nahastu leikezan arrisku bat legez ikusten dau. Gainera bere balioekaitik inbiria deusan arerio legez ere hartu lei, eta gerora beretzat identifikazio eredu bihurtu daiteke “beste” hori.

Umeak bere lagunei esaten deutse egiten dabilena edo egin behar dauana, jolas guztiari hitzezko iharduerak laguntzen deutso eta -barruratu bako pentsamentua-.

Bost urtetik aurrera, taldea lau-bost lagunetara zabaltzen da eta honeen artean alkarren arteko eragina gero eta zabalagoa eta ugariagoa gertatzen da. Umeak euren iharduerak antolatzen eta arautzen saiatzen dira, baina besteen aurrean nork bere nortasuna azaltzeko joera horrek, eta helburu bardin bat asmatzeko ezintasun horrek, arriskuan ipintzen ditu ahalegin honeek.

Aro honetako ume txikienean artean “alkar ulertzeko” joera bat emoten da, handiengoak desadostasuna errazago onartzen daben bitartean.

Ume talde batek iharduera sinboliko batean parte hartzen dauanean, adibidez “paper ezberdinak errepresentatzea”, egoerak berak eskatzen dau bakoitzaren papera ondo zehaztuta egotea, etahonek berarekin dakar arauak ezartzea. Eta aldi berean, bakoitzak errealismo handiz antzeztu behar dau bere papera, besteak ondo uler daien. Guzti honekin, sinbolo indibidualak sozializatu egiten ditu.

Halan ere, sozializazioak lekuri egokiena eskolan aurkitzen dau. Han umeak ordurarte bizi izan dituan esperimendazio sozial eta intelektualetatik ezberdinak bizitzeko aukera izango dau. Dana dala, gogoan izan umearen bizitzako ardatza familiarekin eta afektibitatearekin lotuta doala.

2) HIZKUNTZA

- HIZTEGIA

Izenak: herria, auzoa, kalea, etxea, parkea, dendea, ikastolea, semaforoa, eleizea, udaletxea, espaloia, iturria, aparkalekua, kiroldegia, plazea, etxebizitza, azokea, eskaparatea, errepidea, pisua, zinea, geltokia, eroslekua, pasealekua, errekea, alkatea, dendaria, abadea, zubia, tabernea, botikea, lorategia, kalegarbitzailea, postaria, zirkulazioa, autobusa, kamioia, kotxea, kanpaia, buzoia, gasolina, kutsadurea.

Adjetiboak: gorria, orlegia, laranja, handia, zabala, estua, polita, zatarra, itsusia, garbia, zikina, txukuna, argia, iluna, bajua, altua, ederra.

Aditzak: garbitu, zikindu, igon, jaitsi, errespetatu, ikusi, begiratu, ibili, pasatu, saldu, zaindu, erabili, etorri, joan, itxaron, geratu, margoztu, ezagutu, ikasi, jolastu, hartu, itxi.

Adberbioak: behean, goian, gainean, han, hor, hur, hemen, aurrean, baztarrean, ondoan, erdian, azpian, kontuz, bizkor, astiro, inguruan, kanpoan, ondoan, barruan, ertzean.

- IPUINA

“ASTOA ETA TXAKURRA”

Uda erdia zan eta izugarritzko beroa egiten eban. Nekazari bat feriara joian astoa eta baserriko txakurragaz. Astoaren saskietan tomateak, letxugak, kipulak, piperrak eta azenarioak eroiazan ferian saltzeko. Saski batean ogi zati eta hazur batzuk ere baeroiazan txakurrarentzat.

Han joian ibili eta ibili. Halako baten nekazaria gelditu egin zan, atsedena hartzeko asmoz. Eta hain gozo egoala itzalean, loak hartu eban.

Bitartean astoa bide ertzeko bedarra jaten hasi zan, benetan gose zan eta. Txakurra ere gosez egoan baina saskiak hain altu egozanez ezin eban bere janaria hartu.

- Adiskide -eskatu eutsan astoari- makurtu zaitez apur bat hazurrak eta ogia hartu daidazan.

- Zuk jateko makurtu? Egon horretan -erantzun eutsan astoak. Eta bedarra jaten jarraitu eban ezer gertatu ez balitz legez.

- Ez zaitez holangoa izan. Zuk zeuk ederto jaten dozu eta ni hemen goseak hilten!

- Ba, hor konpon -erantzun eutsan astoak modu txarrean. Eta harantzago joan zan beste landa batera.

Eta han egoala, konturatu barik, otsoa etorri jakon haginka eta hilteko asmotan. Txakurrak urrunetik ikusi eban eta nagusia iratzartu eban bapatean.

- Zoaz, Txuri, eta bialdu eizu otso hori hortik -esan eutsan nagusiak.

Joan zan txakurra hausika otsoa eta astoa egozan lekura eta, heldu orduko, otsoaren gainera egin eban salto. Otsoak, erasotuta sentitu zanean, askatu egin eban astoa, bere burua defenditzeko. Baina Txuri gogorra zan eta ez eban atzera egin, haginka egin eutsan otsoari amurru biziz, lurrean erdi hilda itxi arte.

Orduan astoari begiratu eutsan eta bildurrez dardarka egoan gaixoa oraindik. Hanketan odola eukan.

- Asto gaixoa -esan eban txakurrak-, ez izan bildurrik, amaitu da dana. Zatoz nire ondora. Hankak odoletan daukazuz eta nik osatuko deutsudaz.

Astoak lehenago egin eutsana gogoratu barik, bere ondora joan eta, kontuz-kontuz, zauriak miastu eutsazan. Astoak, lotsaturik, zera esan eutsan ahots apalez:

- Eskerrik asko, Txuri. Zu bai bazarala benetako laguna. Zugaitik izan ez balitz dagoeneko hilda nengoke.

Nekazariak pozik ikusi ebazan txakurra eta astoa alkarren ondoan eta bizirik. Ez eban hareen alkarrizketa ulertu, baina bien ondora hurreratu eta burua laztandu eutsen bie.

- ALKARRIZKETA

- * Nora joian nekazaria?
- * Nogaz joian?
- * Zer daroa astoaren saskietan?
- * Nekazaria bidean lotan dagoala nor etorri jaken hilteko asmotan?
- * Zein zan txakurraren izena?
- * Nor geratu zan lurrean erdi hilda?
- * Nork esan eban "Asto gaixoa"?
- * Nork osatu deutsoz astoari hankak?
- * Zer egin eutsan kontuz-kontuz?
- * Zer esan eutsan astoak txakurrari?
- * Ulertu eban nekazariak astoaren eta txakurraren alkarrizketea?

- HIZKUNTZA FUNTZIOAK LANTZEN

- Informazioa eskatu: - Nor zara zu?
 - Zein da zure izena?
 - Non bizi zara?
- Informazioa emon: - Ni Miren naz.
 - Nire izena Aintzane da.
 - Eta hau Koldo da.
 - Hau nire ama da.
 - Ezagutzen dozu nire ama?
- Eskeintza egin: - Gailatea, esnea, ... nahi dozu?
 - Nork behar dau gehiago?
 - Gailetarik behar dozu?
- Eskeintza ez onartu: - Ez, ez dot nahi.
 - Ez, hainbeste ez.
 - Ez dot nahi gehiago.
- Satisfazioa adierazo: - Humm, hau bai gozoa!
 - Ederra dago!
 - Gehiago nahi dot.
 - Ekarri niri be.

- IPUINEKO ESPRESIOAK

- * Izugarrizko beroa.
- * Ibili eta ibili.
- * Egon horretan.
- * Ez zaitez holangoa izan.
- * Hor konpon!
- * Asto gaixoa.
- * Ez izan bildurrik.
- * Kontuz-kontuz, zauriak miaztu.
- * Zu bai bazarala benetako laguna.

- IPUINEKO HIZTEGIA

Izugarrizko, nekazari, feriara, saskietan, hazur, atsedena, itzalean, bide ertzeko, bedarra, adiskide, makurtu, landa, haginka, iratzartu, hausika, erasotuta, askatu, miaztu, lotsaturik, ahots apalez, alkarrizketa, laztandu.

2) HIZKUNTZA

- HIZTEGIA

Izenak: urtaroa, udagoiena, eguraldia, igalia, zuhaitza, enborra, hostoa, susterra, azala, hazia, sagarra, makatza, laranja, intxaurra, mahatsa, gaztainea, hurra, sagastia, mahastia, gaztainondoa, intxaurrendoa, urritxa, azokea, haizea, euria, adarra, mizpirua, ezkurra, limoia, mandarinea, pikua, haritza.

Adjetiboak: euritsua, haizetsua, mamitsua, lehorra, garratza, mingotsa, gozoa, latza, leuna, gogorra, argia, iluna, biguna.

Aditzak: ureztatu, erein, inausi, euria egin, zimeldu, jausi, igertu, horitu, busti, lehortu, dastatu, jan, ikutu, apurtu, batu, ilundu, aldatu, zatitu.

Adberbioak: busti-busti, askotan, gitxitan, bizkor, laster, berandu, gaur, atzo, bihar, aurten, igaz, beti.

- IPUINA

“PATXI ERREMENTARIA”

Patxi errementaria burdin-lanetan ebilen gizon gaiztoa zan. Horregaitik deabru (demonino) bat etorri jakon bila, bera infernura eroateko. Deabru honek Zart eban izena.

- Patxi, oso gaiztoa zara eta zu infernura eroateko etorri naz.

- Bai, baina lehenago gosaldu egingo dogu. Jesarri aulki horretan! -esan eutsan Patxik.

Amaitu eben gosaria eta Patxik esan eutsan:

- Goazen orain infernura, Zart!

Baina Zart ezin zan zutundu Patxi gaiztoak pikea (sustantzia eranskorra) ipini eutsan aulkian ipurdian eta. Deabrua aulkian erantsita egon zan holantxe hiru urtez.

Ha infernura joan zanean, beste deabru bat bialdu eutsien Patxiri. Deabru hau Axut zan. Baina Zartek esan eutsan Axuti:

- Patxi oso gaiztoa da eta aulkian jesartzeko esaten badeutsu, zuk ezetz esan. Ni hantxe euki nau aulkian josita legez hiru urtez.

Heldu zan Axut Patxiren etxera eta esan eutsan:

- Oso gaiztoa zara, Patxi, eta zu infernura eroateko etorri naz.

- Bai, baina lehenago gosaldu egingo dogu. Jesarri aulkian!

- Ez, ez naz jesarriko.

- Orduan, etzun ohean.

- Bai, horixe egingo dot.

Baina ohean ere pikea emonda eukan eta erantsita geratu zan Axut deabrua. Hau ere hiru urte egon zan holan ohean. Patxik askatu ebanean infernura joan zan eta hirugarren deabru bat bialdu eutsien Patxiri. Deabru hau Gatz zan. Baina etxetik urten aurretik esan eutsan Axutek Gatz:

- Patxi oso gaiztoa da eta kontuz ibili. Aulkian jesartzeko edo ohean etzuteko esaten badeutsu, zuk ezetz esan. Han egon gara Zart eta ni hiru urtez erantsita.

Joan zan Gatz Patxiren etxera eta esan eutsan:

- Oso gaiztoa zara, Patxi, eta zu infernura eroateko etorri naz.

- Bai, baina lehenago jan egingo dogu. Jesarri aulkian!

- Ez, ez naz jesarriko.

- Etzun, ba, ohean!

- Ez, ez naz etzungo.

- Orduan, joan ikoak jatera, oso gozo dagoz eta.

- Bai, horixe egingo dot.

Baina iko-arbolan (ikondoan) ere pikea emonda egoan eta Gatz gizarajoa erantsita geratu zan. Holan hiru urte egon zan, eta eskolako umeak harriak botaten eutsiezan.

Ha askatu eta ez jakon gehiago deabrurik etxera etorri. Baina Patxi zahartu egin zan eta hil aurretik bere erremintak hartu ebazan hiltzen zanagerako: alikateak, tenazak, burdin-ziria, mailua...

Eta hil zanean erreminta honeekin han azaldu zan infernuko atean:

- Dan-dan-dan!

- Nor da?

- Patxi errementaria!

Deabru guztiak hori entzuckeran bildurtu egin ziran eta infernuko ateak itxi egin ebazan, ateen kontra mahaiak, aulkiak eta ahal eben guztia ipiniz. Eta deabruen nagusiak Patxi zelangoa zan ikusi nahi izan eban zulo txiki batetik, eta Patxik burdin-ziria hartu eta begia atera eutsan.

- Ai, ai, ai!!!... -esaten eban minez deabruen nagusiak.

- Ze ai! eta ze oi! dino tontolapiko horrek! -oihu egin eutsen Patxi errementariak.

Orduan beste deabru batek Patxiren ahotsa entzun nahi izan eban zirrikitu baten belarria ipiniz, eta Patxik tenazak hartu eta belarria kendu eutsan.

Deabruak ez eben Patxi maite eta esan eutsien:

- Alde hemendik, Patxi! Alde!

Orduan Patxi zerura joan zan.

- Dan-dan-dan!

- Nor da? -itaundu eban San Pedrok, zeruko atezainak.

- Patxi errementaria!

- Patxi errementaria? Zu gizon gaiztoa zara eta ez zara zeruan sartuko.

Baina orduantxe atso zintzo bat etorren zerura soineko luze-luzea jantzita.

Eta Patxi haren zain egoan. San Pedrok atea zabaldu eutsan atsoari eta Patxi errementaria haren soinekopean gordeta sartu zan zeruan betiko.

- ALKARRIZKETA

* Zelako gizona zan Patxi?

* Horregaitik nor etorri jakon?

* Zein zan lehenengo deabruaren izena?

* Zer jazo jakon gosaltzera joan zanean?

* Axut, bigarren deabrua, jesarri zan aulkian?

* Axut non geratu zan erantsita?

* Zenbat denpora egon zan ohean Axut?

* Zein zan hirugarren deabruaren izena?

* Zer jatera joan zan Gatz?

* Etorri jakon deabru gehiago Patxiri?

* Patxi hil zanean zer eroan eban infernura?

* Patxi infernura heldu zanean zein deabruk urten eutsan?

* Patxik nori kendu eutsan belarria?

* Maite eben deabruak Patxi?

* Nora sartu zan azkenean Patxi?

- HIZKUNTZA FUNTZIOAK LANTZEN

Zerbait proposatzen: - Zer moduz sartuko bagina?

- Sartuko gara?

- Eta sartzen bagara zer?

- Zergaitik ez gara sartzen?

Arrazoia emon: - Holan hobeto dalako.

- Nik hori uste dodalako.

Ez sinistu: - Bai, zera!

- Tira, tira...

- Hala, hala...!

- Nik ez dot holakorik sinisten.

- Esan be!

- IPUINEKO ESPRESIOAK

- * Oso gaiztoa zara.
- * Bai, baina...
- * Ez, ez naz jesarriko.
- * Bai, horixe egingo dot.
- * Dan, dan, dan!
- * Nor da?
- * Ai, ai, ai!
- * Ze ai! Eta ze oil!
- * Alde hemendik, Patxi! Alde!
- * Tontolapiko horrek!

- IPUINEKO HIZTEGIA

Errementaria, burdin, gaiztoa, infernua, gosaldu, pikea, erantsi, etzuteko, jesarteko, gizarajoa, erremintak, alikateak, tenazak, burdin ziria, mailua, oihu, zirrikitu, zerua, itaundu, atezaina, atso, zintzo, soineko, soinekopean gordeta.

2) HIZKUNTZA

- HIZTEGIA

Izenak: eguraldia, negua, gabonak, hotza, izotza, edurra, euria, txingorra, zerua, aingerua, izarra, goroldia, hostoa, adarra, lupetza, gaztaina, intxaurra, gorostia, pinua, zuhaitza, Jaiotzea, Olentzero, Jesus, erregea, estalpea, Ama Birjiña, San Jose, turroia, txanpana, sehaskea, gozokia, konpota, oparia, almendrea, hegaztia, txoria, tanbolina, sukaldea, artzaina, ardia, taldea, artaldea.

Adjetiboak: hotza, beroa, luzea, laburra, gozoa, zaharra, barria, apaina, epela, arina, astuna, pisutsua, lodia, mehea, lehorra, bustia, zintzoa, apala, leuna, zuria, baltza, horia.

Aditzak: jantzi, erantzi, jatsi, banandu, hurreratu, estaldu, apaindu, babestu, zoriondu, ikusi, abestu, urten, sartu, poztu, dastatu, eskatu, biztu, josi, estali.

Adberbioak: hainbeste, zurituta, baltzituta, beteta, alboan, goian, aurrean, atzean, gainean, iluntzean, pozik, igaz, aurten.

- IPUINA

“GABONAK”

Gabonetan zerutik aingeru talde handi bat etorten da lurrera. Opariak, paketeak, gozoak ekarten dabez eta ume onei emoten deusieez.

- Behin baten Gabon eguna zan eta aingeru mordoa jatsi zan zerutik.

Aingeru txikienak herri txiki bateko umei opariak banatzeko agindua jaso eban.

Gaua zan. Hotz handia egiten eban. Edurrak teilatu guztiak zurituta eukazan. Aingerutxoa etxe askotan sartu zan eta umeentzat opari asko itxi zituan.

Herritik urteterakoan, errekondu baten txabolatxo errukarri bat ikusi eban.

Txabolea zaharra zan eta edurrak ia estalduta eukan. Txabolara hurreratu zan.

- Badago hemen umerik? -itandu eban.

Inork ez eutsan erantzun. Aingerutxoa leihora hurreratu zan eta barrura begiratu eban.

- Zer dago hor?

Arbasta batzuen gainean zabaldua zaku zahartxo batzuekin estalduta, umetxo bat egoan. Bakarrik egoan txabolan umea. Aingerutxoa barrura sartu zan. Hotz egoan. Sua amatauta, itzalita. Aingerutxoa barrura sartu zanean, txabolatxo dana argitu zan eta etxe guztia berotu egin zan. Sua ere isiotu egin zan.

Aingerutxoak umetxoarengana hurreratu eta mosu handi bi emon eutsazan. Etxea opariz, gozoz eta janariz bete eta zerura joan zan.

Amatxo etxera etorri zanean, harritu egin zan etxea hain bero aurkitzean, halako usain gozoa sentitzean eta hainbeste janari ikusita.

- Nor egon da hemen? -itandu eutsan semetxoari.

- Amatxo, amesetan egin dot. Aingerutxo bat sartzen ikusi dot. “Ikusten zaitut, ikusten zaitut” esaten izan deusat aingerutxoari, baina amesetan egon naz eta ez deust entzun. Aingerutxoa ikusi dot nik sua isiotzen, opariak ipinten, janariak pilatzen. Eta bere lagunak barrez ikusi ditut leihoan kanpotik. “Ikusten zaituet, ikusten zaituet” esan eta barre egin deutset, baina ez deustie entzun amesetan egon nazalako. Baina barre egiten izan dabe.

- Etorri zaitez semetxo, etorri. Zeruko aingeruak etorri dirala uste dot neuk ere. Gaur Gabon eguna da. Eta gora ta behera ibiltzen dira aingerutxoak ume onak ikusten.

- Amatxo, orain ez nago amesetan eta ez ditut ikusten. Lehen amesetan ikusi egin ditut.

- ALKARRIZKETA

- * Zer jazoten da Gabonetan?
- * Zer emoten deutsiee aingeruak umeei?
- * Zer itandu eban aingerutxoak txabola aurrean?
- * Zer egon zan txabola barruan?
- * Zer jazo zan txabola barruan aingerua sartzerakoan?
- * Zer ikusi eban umetxoak amesetan?

- * Azkenean, amesetan egon zan umetxoa?
- * Ipuinaren laburpen bat egin daiela eskatu umeei.

- HIZKUNTZA FUNTZIOAK LANTZEN

Arreta erakarri: - Entzun!
 - Entzun, mesedez!
 - Aizu!
 - Adi egon danok!
 - Begira!
 - Entzungo al deustazue?

Arretaz: - Zer nahi dozu?
 - Zer?
 - Bai?
 - Bai, zer?
 - Bai, esan?

Zerbait egiteko argitasuna emon:
 - Hobeto azalduko deutsut.
 - Nire laguntza izango dozu.
 - Lagunduko deutsut egiten.
 - Hori ez egin holan, honan baino.
 - Hoba dozu holan egin.

- IPUINEKO HIZTEGIA

Zerutik, talde, opariak, Gabon eguna, mordo, jatsi, aingeru, jaso, errekondu, txabolatxo, errukarri, estaldu, arbasto, sua, amatauta, itzalita, isiotuta, amesetan.

2) HIZKUNTZA

- HIZTEGIA

Izenak: etxea, sendia, aita, ama, anaia, arrebea, ahiztea, nebea, lantegia, lanbidea, langabezia, langilea, nekazaria, suhiltzailea, dendaria, arotza, sukaldaria, zapataria, jostuna, arrantzalea, osagilea, artzaina, tabernaria, mekanikoa, garbitzailea, okina, uleapaindegia, igeltseroa, ikaslea, irakaslea, postaria, gidaria, argazkilaria, iturgina, kalezaina, soinularia, dendea, janaria, barazkia, edaria, arrantzea, arraindegia, azokea, soloa, lurra, tresnea, bulegoa, idazkaria, gosaria, bazkaria, askaria, afaria, egurra, harria, zementua...

Adjetiboak: handia, txikia, behartsua, aberatsa, zintzoa, zuhurra, alperra, langilea, bizkorra, nagia, lasaia, eroso, lodia, mehea, ederra, luzea, laburra, osasungarria, kaltegarria, biguna, gogorra, osasuntsua...

Aditzak: egin, saldu, erosi, ekarri, eroan, konpondu, garbitu, ureztatu, osatu, jagi, ikusi, zaindu, jantzi, erantzi, entzun, igon, marraztu, margoztu, bete, gastatu, jan, edan, moztu, zikindu, banandu, gidatu...

Adberbioak: goiz, berandu, atzo, gaur, bihar, inoiz, aspaldi, ...

Beste zenbait espresio: egurrezko, burdinezko, harrizko, lurrezko, artean, bitartean, barruan, kanpoan, gainean, inguruan, alboan, salgai, karuago, merkeago, arduratsu, ardurabako, ...

- IPUINA

“ASTO KARGATUA”

Asto bat, zaku-gatza bizkarrean ebala, etxera joian tapa-tapa. Joan joiiala, errekastu bat zeharkatu beharrean aurkitu zan. Baina errekearen erdian, eskoiko hankeak laban egin eta, plast!, jausi egin zan uretan.

Zutundu zanean, zer eta, bere zama arindu egin jakola konturatu zan; eta, bustia busti!, ez zan biziki hasarretu. Esan ere egiten eban bere artean eta:

- “Gaur ikasi joat ikastekoa, errekan busti eta zama arindu alajaina! Ez joat ahaztu behar haxe orratio!”

Hurrengo azoka-egun baten, belaki edo esponjazko zaku bat ipini eutsien astoari bizkarrean. Etxera etorrela, nekeak eraginda edo burura etorri jakon lehengo egunekoa. Artean ere urrun egozala, egundokorik arinen susmatu eban errekastuaren isuri-susmurrua, eta sudurreko zuloak zabal-zabal eta muturreko bizarrak tente-tente, poz baten joian, bere bideko nekeak hantxe gozatu eta arindu behar ebazala eta. Eta heldu zanean heldu, plasta! itxi eutsan jausten bere buruari, eta itxi ere urik sakontxoena egoan lekuan hain zuzen. Ha basittua hartu ebana!

Eta altzakeran? Orduan ziran kontuak! Urez bete ziran belakiak, eta nekez bai nekez jaso ahal izan eban bere burua. Gero puzzka jarraitu behar izan eban etxera-bidea. Izan ere, belakia eta gatza ez ziran bardinak!

- ALKARRIZKETA

- * Astoak zer eroan bizkarrean?
- * Astoak non egin eban laban?
- * Hurrengo azoka egunean zer jarri eutsien astoari bizkarrean?
- * Eta altzau, zelan altzau zan?
- * Zergaitik altzau zan nekez?

- HIZKUNTZA FUNTZIOAK LANTZEN

- Iritzia eskatzen:
- Atsegin dozu ipuina?
 - Zer deritxazu?
 - Zer, polita da?

- Eretxia emoten:
- Oso polita da.
 - Hori ipuinaren polita!
 - Hau bai polita!
 - Ez da polita.
 - Ez jata bat be gustatzen.

- IPUINEKO ESPRESIO BATZUK

- * Etxera joian tapa-tapa.
- * Plast jausi zan uretara.
- * Baina busti-busti egin eta ez zan hasarretu.
- * Gaur ikasi dot ikastekoa.
- * Ez dot ahaztu behar hauxe orraitio!
- * Susmatu eban errekaostoen isuri-susmurrua.
- * Muturreko bizarrak tente-tente.
- * Orduan ziran kontuak.

- IPUINEKO HIZTEGIA

Bizkarrean, errekaostoa, laban, plast, zama, arindu, belaki, susmatu, isuri susmurrua, tente, nekeak arindu, sakontxoena...

2) HIZKUNTZA

- HIZTEGIA

Izenak: aberea, piztia, arraina, intsektua, usoa, arranoa, enarea, ahatea, dortokea, zaldia, aumea, ahuntza, tigre, lehoia, elefantea, azeria, erbia, otsoa, hartza, urtxintxea, sugea, balea, izurdea, basurdea, buztana, hegoa, okelea, narrua, arrautzea, apatxa, zaldia, marraskiloa, tximeletea, hankea, lumea, adarra, habia, igela, tximinoa, txakurra, txarria, behia, txahala, hegaz, uger, lauhankan, behorra, moxala, astoa, akarra, ardia, aharia, artxoa, oiloa, oilarra, txitea, idia, irrintzia, orroa, eulia, eltxoa, erlea, inurria.

Adjetiboak: zatarra, gaiztoa, bizkorra, motela, ahula, sendoa, gogorra, arina, txikia, handia, basatia, mantsoa, astuna, polita, dotorea, mehea, sendoa, luzea.

Aditzak: hasarratu, ibili, joan, ekarri, egin, igon, egon, etorri, eroan, emon.

Adberbioak: Arin, bizkor, nekez, astiro, han, hor, hemen, hantxe, aurrean, atzean, barruan, kanpoan, zehar, zutunik, etzunda, zintzilik, berandu, goiz.

- IPUINA

“ASTOA ETA OTSOA”

Gauza guztiak hizketan ekien garaian gertatu zan hau. Behin baten astoa Nafarroatik Ataunera etorren, zahagi bat ardo bizkarrean ekarrela.

Eta otsoak urten eutsan bidean, guztiz goseturik. Astoak esan eutsan otsoari:

-Egarri al haz, egarri?
Bajaukat hi(re)tzat edari.

Baina otsoak:

-Astotxo, enok egarri;
baina bai goseak larri.
Oraintxe jan behar deuzat
hire buru ta belarri.

Eta astoak orduan:

-Hor goian jagok artalde,
batere txakurrik gabe.
Harantza doanarentzat
han jagok bildotsa pare.

Baina otsoak barriz ere:

-Orpoan jaukat arantza,
ezin nok joan harantza.
Hemen holako aukera
ta zertara joan inontza?

Orduan astoak:

-Hor goian goian ermita,
San Bartolome deritza;
nik meza entzun artean
goiazak biok harantza.

Otsoak ez eban joan nahi; baina azkenean, bera ardietara joan arte astoari ermitara joaten itxi eutsan. Baina astoak esandako lekuan artalderik ez eta otsoa ermitara joan zan. Astoa ordurako ermita barruan egoan eta, otsoa etorten ikustean, atzeko hanka biekaz ermitako atea gogor itxi eban: Orduan otsoak amorru bizian holan esan eutsan astoari:

-Asto zaharra mukizu,
asko eta gehiegi dakizu.
Barrero nik harrapatzean
mezarik entzungo ez dozu.

Astoak, barriz, ermita barrutik:

-Otsango, otsango gazia,
gaztean txarto hazia,
bihar jango banok ere,
bajoak gaurko bizia.

Astoa motela dala, baina oraingoan otsoa gertatu zan motelago astoaren ondoan.

- ALKARRIZKETA

- * Zelan deitzen da ipuina?
- * Otsoa nondik nora etorren?
- * Zer ekarren bizkarrean?
- * Nork urten eutsan bidean?
- * Nork esan eban egarri al haz egarri?
- * Non dauka arantzea?
- * Zein hasarratu zan, astoa ala otsoa?
- * Zein da motelagoa, astoa ala otsoa?

- HIZKUNTZA FUNTZIOAK LANTZEN

Atsegina:

- Niri be hori gustatzen jata.
- Nik be hori nahi dot.
- Nik be nahi neuke hori.
- Nik hori nahiago dot.
- Baina nik hori nahi dot.
- Hori nire gustokoa da.

Atsegín eza:

- Ba, hori ez jat gustatzen.
- Hori ez da nire gustokoa.
- Hori ez dot nahi, bestea nahi dot.
- Hori ez jat bat be gustatzen, nahiago dot bestea.
- Nik hori ez dot nahi, hori zatarra da.

Beste esaera batzuk:

- On egin.
- On dagizuela!
- On dagizula!

- IPUINEKO ESPRESIO BEREZIAK

- Egarrri al haz egarri?
- Bajaukat hiretzat edari.
- Orpoan jaukat arantza.
- Ezin nok joan harantza.
- Atea gogor itxi eban.
- Amorru bizian.
- Asko eta gehiegi dakizu.

- IPUINEKO HIZTEGIA

Hizketan, garaian, gertatu, zahagi, goseturik, edari, gose, larri, artalde, gabe, pare, arantza, aukera, orpoan, inontza, ermita, gazi, motel.

- Eta? -galdetu eutsan orduan eguzkiak haizeari.
- Heuk irabazi dok -erantzun eutsan haizeak.

- ALKARRIZKETA

- * Nork egin eban apostua?
- * Ze apostu egin eben?
- * Lehenengo haize boladak zer kendu eutsan gizonari?
- * Haizearen aurka egiteko zelan joian gizona?
- * Eguzkia zelan hasi zan?
- * Gizonak lehenengo zer kendu eban?
- * Abrigoa ta txamarrea kendu eta non etzun zan?
- * Azkenean non sartu zan?

- HIZKUNTZA FUNTZIOAK LANTZEN

- Ustekabea:
- Ene, zer da hau?
 - Aizu, baina.
 - Hau da gauza harrigarria!
 - Ikusgarria da!
 - Hau da suerte txarra!
 - Hau zoriona!
 - Ze arraio da hau.

- Poza:
- Hau poza!
 - Ze ondo!
 - Ze ederto!
 - Oso pozik nago.
 - Hau da hau!
 - Hori dok eta!
 - Ezin hobeto!
 - Oso ona benetan.
 - Pozten naz.

- IPUINEKO HIZTEGIA

Apustu, indartsuago, garaile, zotz egin, masaila, puzka, adarrak, barritsua, heldu, adar, hosto, hautsak, sakelean, saman, neka-neka, zakar, txanda, hotzikarak, gizajoa, pago.

2) HIZKUNTZA

- HIZTEGIA

Izenak: hegaztia, txepetxa, txantxangorria, urtaroa, negua, udabarria, udea, lorea, susterra, zuhaitza, hostoa, kimua, hegaztia, habia, bedarra, landea, tximeletea, eguzkia, ura, usoa, txirritxirria, berotasuna, epela, eguraldia, intsektua, inurria, erlea, hazia, enborra, adarra, landarea, lorategia, baratza, galtzua, arrautzea, txorikumea, margaritea, kukuprakea, txibiritea, larrosea, kalea, krabelinea, amapolea, kukua, matxinsaltoa, txamilotxea, marigorria.

Adjetiboak: apaina, dotorea, loratsua, txikia, urduria, alaia, hotza, beroa, epela, haizetsua, orritsua, indartsua, bizkorra, usaintsua.

Aditzak: abestu, loratu, usaindu, erne, erein, hazi, jantzi, epeldu, berotu, ikusi, landatu, ekarri, hartu, harrapatu.

Adberbioak: txiotxioka, pozik, hur, urrin, arin, astiro, han, hor, hantxe, beti, gehiago, asko, gitxi, gitxiago.

- IPUINA

“IPARRAIZEA ETA EGUZKIA”

Behin baten apostua egin eben iparraizeak eta eguzkiak ea biotatik gehiago zein ete zan. Haizeak bera zala inoan, eguzkiak barriz bere burua jotzen eban indartsuagotzat. Zelan neurtu bien indarrak?

Gizon bat ikusi eben bien artean bidean joiala: txapela buruan, eta soinean abrigo bat. Eta esan eutsien alkarrri:

- Gizon horri txapela burutik eta abrigoa soinetik kentzen deutsanak, harekek irabaziko jok apostua, eta bera izango dok garaile.

Zotzak egin eta haizea hasi zan lehenengo lanean. Masailak betean hasi zan puzka. Arbolen adarrak batera eta bestera erabilzan eskuekin kontu asko esaten dabezan atso barritsuak legez. Lehenengo haize-boladak ia txapela eroan egin eutsan gizonari burutik.

Orduan esku biekaz heldu eta belarrietaraino sartu eban. Haizeak orduan eta gehiago. Txistu baten erabilzan adar, hosto eta lurreko hautsak. Gizonak abrigoa botoi guztiekin lotu-lotu egin, sakelean eukan bufanda saman buelta bi emanda jarri eta esku biek txapelari helduz, makur-makur eginda joian, haizearen kontra ezin ebalako aurre egin. Azkenean, neka-neka eginda, han inguruan aurkitu eban babesgune baten geratu zan haize zakar harek joteari itxi arte. Haizeak hori ikusi ebanean, galdutzat emon eban bere apostua, eta eguzkiari itxi eutsan txandea.

Eguzkia astiro-astiro hasi zan, lehenengo argitzen, gero berotzen. Gizonak hori ikusi ebanean, eta haizea gelditu egin zala, bideari ekin eutsan barrero. Baina eguzkiak gogor jotzen ebanez, lehenengo samako bufandea kendu eban, gero abrigoa askatu. Bero egiten eban, ostera, bero, eta txapelak berak ere izerdia emoten eutsanez gizonari, kendu egin eban hau ere eta eskuan hartu. Baina lehenengo hotzikarak gizonari kendu eutsazanean, ekinahalean hasi zan eguzkia berotu eta berotu. Gizon gizajoak ezin eban gehiago. Heldu zan pago handi baten itzalera eta txapela, abrigoa eta txamarrea kenduz, bedar gainean etzun zan beso eta hankak zabal-zabalik. Halan ere, bero eta beti bero. Orduan, han inguruan aurkitzen zan erreka koskor baten sartu zan bere jantziak pagondoaren azpian itxiz.

2) HIZKUNTZA

- HIZTEGIA

* Izenak:

eguzkia	eguerdia	ilbehera
ilargia	bonbilea	ilgorea
izarra	kandelea	semaforoa
tximistargia	farola	argitasuna
ipurtargia	lainoa	udea
gaua	gerizpea	udabarria
iluna	zuzia	posporoa
eguna	goiza	iluntasuna
zerua	egunsentia	argi ontzia
linternea	eguerdia	ontzia

* Adjetiboak:

diztiratsua	gorria	leuna
izartsua	zabala	iluna
zuria	izugarria	argia
baltza	gogorra	makala
laranjea	biguna	indartsua
horia		

* Aditzak:

argitu	ekarri	urten
ilundu	eroan	sartu
berotu	isiotu	hasi
ikusi	amatau	esnatu
osotu	gorritu	ezkutatu

* Adberbioak:

zintzilik	asko	gitxi
isiotuta	aurrean	atzean
amatauta	nahiko	azpian
egunez	gehiago	

- IPUINA

“EGUZKIA ETA IPURTARGIA”

Eguzkia harro-harro egoan. Egun osoan bazterrak bero-bero egin ebazan. Baina gaua etorri zan eta laino handi batek bere kolkoan sartu eta gorde eban eguzkia.

Ipurtargia, egun osoan bedarpean ezkutatuta egon zan eguzkiaren argitasunak itsutu beharrean. Baina eguzkia lainoak irunsi eta kolkoan gorde ebenean, bere ipurdiko argitxoa isiotu eta landan zehar ibiltzen hasi zan. Haren barreak ez eben amairik. Eta eguzkiari adarra jotea pentsatu eban.

- Eup, esan eutsan ipurtargiak, zureak zer balio dau ba? Egunez dana argi dagoanean harrokeriak jotea erreza da. Etorri oraintxe landara zeinek dogun argi gehiago ikustera!

Eta ipurtargiaren ipurdiko bonbileak argi briztadak botaten ebazan.

- Neuk dakart landara argitasuna, eta ez zuk. Dana argi dagoanean ez dau balio, esan eban ipurtargiak.

- Gaua gauezkoentzat; ni egunezkoa naz eta egunero dakart argia. Egunez zuk zer dakarzu ba? -erantzun eutsan lotsaz beterik eguzkiak lainoaren kolkotik.

- Ba zuk baino argi handiagoa gauez -esan eutsan ipurtargiak-. Nik eta semaforoak eta bonbilak gauez egiten dogu argi, gauez. Preminea dagoanean eta ez egunez, dana argi dagoanean. Geuk dakargu gaueko argitasuna.

Eguzkiak ez ekian zer erantzun. Lotsatuta egoan. Lainoaren kolkoan sartuta, lotsaz gorrituta egoan.

- Eee! Isiotzen bazara, zer ikusten dogun, gero esango deutsugu. Ipurtargiaren adar joteak ez eukan amairik.

Baina goizaldea etorri zan eta eguzkia, lainoaren kolko ertzetik begi bat atara, eta begira hasi zan. Ipurtargiaren argia brast! Itzali zan, eta bedarpera ezkutatu zan gauera arte. Dana argi egoanean ez egoan argi premiarik.

- Atzo ere argia emon neutsun, eta gaur ere ikusten bazaitut, argia emongo deutsut. Eguna egunezkoentzat, -esan eban eguzkiak.

Ipurtargia isilik egoan. Eguzkiak itsutuko ete eban bildurrez egoan. Sekulako argitasuna eukan eguzkiak. Munduko ipurtargi guztiak batera ipinita baino argi handiagoa. Baina ipurtargiak baekian gaua etorkeran eguzkiak ez ebala argitasunik, eta hobeto itxaroteko loaldi eder bat bota eban.

- Neure argitasuna ipurdiko bonbilan sartu eta haxe erabiltzen dozu.

Baina ipurtargia, bere bateriak beteten, bedarpean egoan lo.

- Zu. Non zagoz orain, ipurtargi?

- ALKARRIZKETA

- * Nor egoan harro-harro?
- * Zelan euki ebazan eguzkiak bazterrak egunez?
- * Nora joan zan gauez eguzkia?
- * Zer jazo zan gero?
- * Zer esan eutsan ipurtargiak eguzkiari?
- * Harroputza da ipurtargia?
- * Zergaitik da harroa?
- * Non egoten da egunez ipurtargia?
- * Zer egiten dau egunez?
- * Zerk emoten deutso argia ipurtargiari?
- * Zein da handiagoa ipurtargia ala eguzkia?
- * Nork esan eban, gaua gauezkoentzat?

- HIZKUNTZA FUNTZIOAK LANTZEN

- Ezinezkotzat jo:
- Zer dinozu? Ez da egia izango?
 - Ezinezkoa da hori!
 - Zelan izan daiteke hori?
 - Tira, tira! Nork esan deutsu hori?

Zerbait proposatu:

- Gauza bat pentsatu dot.
- Badakizue zerekin gogoratzen nazan?
- Gauza bat bururatu jat.

Harridura:

- Ez da egia izango!
- Ai ene!
- Ene bada!
- Ai ama!
- Jesus, Maria ta Jose!
- Izugarria da!

- IPUINEKO ESPRESIO BEREZIAK

- Eguzkia harro-harro egoan.
- Gaua gauezkoentzat.
- Eguna egunezkoentzat.
- Lotsaz gorrituta egoan.
- Argia brast amatatu zan.
- Sekulako argitasuna eukan eguzkiak.

- IPUINEKO HIZTEGIA

Bazterrak, kolkoan, ipurtargia, bedarpean, ezkutatuta, itsutu, iruntsi, isiotu, amatau, bristadak, lotsaz, preminea, goizaldea.

2) HIZKUNTZA

- HIZTEGIA

* Izenak:

saltzailea	uruna	okelea
dendea	ontzia	botikea
dendaria	saltokia	liburudendea
ogitegia	gozotegia	sagarra
usaintegia	eroslea	igalia
igalitegia	azokea	arraina
harategia	txanpona	jostailua
arraindegia	txartela	liburua
ogia		

* Adjetiboak:

merkea	zatarra	apaina
karua	handia	dotorea
gozoa	txikia	egokia
garratza	luzea	bizkorra
polita	zabala	desegokia

* Aditzak:

saldu	eroan	batu
erosi	ekarria	ukeratu
usaindu	hartu	kendu
ordaindu	begiratu	kobratu
janedan	zaindu	

* Adberbioak:

non	gitxiago	merkeago
noiz	gitxiegi	raintxe
zer	bardin	zabalik
zelan	arin	itxita
zelako	bizkor	handien
gitxi	gehiago	txikien
asko	karuago	

- IPUINA

“MIREN ESNETARIA”

Miren bizikleteari atoe bat lotu eta azokara doa esneagaz.

Pozik doa. Esneak asko balio dau.

“Esne diruaz ehun arrautza erosiko dodaz eta oilo zuriari ezarri eta ehun txita eukiko dodaz. Artoa emon eta handi egiten diranean, makera bat erosiko dot. Makereak hamabost ume egingo dauz. Ezkurra eta artoa janda handi egingo dira. Makerea eta txarrikumeak salduta, behia erosiko dot. Behiak txahala egingo dau eta biak salduta, autoa eta oihal-txabola barri bat erosiko dodaz oporretarako”.

Pozarren bizikleteari bizkorrago eragiten hasten da eta bidearen bihurrunean irrist egin eta esne ta guzti jausten da.

Miren negarrez hasten da.

Agur nire esne eta arrautza, oilo, txita, makera, txarrikume, behi, txahal, auto eta oihai-txabola.

- ALKARRIZKETA

- * Nora doa Miren?
- * Zenbat balio dau esneak?
- * Zer doa saltzen Miren?
- * Zer gura eban erosi esnearen diruaz?
- * Zuk zer erosiko zeunke diru horren bidez?
- * Zelan amaituko zeunke ipuin hau?

- HIZKUNTZA FUNTZIOAK LANTZEN

Informazio eskaera:

- Zer gertatzen jatzu?
- Zer dozu?
- Zer pasatzen jatzu?
- Zergaitik egiten dozu negar?
- Zergaitik zagoz negarrez?

Segurtasuna emon:

- Egon nasai, hori ez da ezer!
- Ez negarrik egin.
- Ala, ala, pasau da.
- Egon trankil, ez da ezer izan.

- IPUINEKO HIZTEGIA

Atoe, azoka, ezarri, artoa, ezkurra, oihaltxabola, eragin, bihurrenean, irrist, atsekabez, ametsetan.

2) HIZKUNTZA

- HIZTEGIA

* Izenak:

oporra	kotxea	lurgarraioa
garraioa	motorra	airegarraioa
astia	autobusa	udea
jaia	bizikletea	urteerea
barrakea	patineta	berotasuna
itsasaldea	hegazkina	ikasturtea
autoa	itsasuntzia	mendia
argazkia	txalupea	jolasa
jantzia	errepidea	hondartzea
beroa	autopistea	laguna
postala	gurasoa	mendigoizalea
ibilaldia	ugerra	ilunabarra
iluntzea	arratsaldea	

* Adjetiboak:

polita	motela	argia
zatarra	dotorea	iluna
epela	handia	eguzkitsua
bizkorra	txikia	

* Aditzak:

ibili	itzuli	igon
joan	abiatu	jatsi
ikusi	hasi	egon
egin	hazi	poztu
ekarri	heldu	

* Adberbioak:

pozik	goian	aurten
egunero	motelago	igaz
beti	ondoan	beti
gehien	baztarrean	betiko
gitxien	goiz	gehiago
bizkorrago	berandu	ondo
txarto		

- IPUINA

“ARRANTZALE TXILIBITU-JOTZAILEA”

Arrantzale bat, txilibitua eta sarea berarekin hartuaz, arrantzara joan zan. Itsasertzeko harkaitzetako baten gainean zutik jarri zan eta txilibitua joten

hasi zan, holan arrainak beren kasa etorriko zirala pentsatuz. Baina bai zera etorri, bera nekatu zan txilibitu jotzen arinago. Eta halan, azkenean txilibitua zakuan itxi eta sarea uretara bota eban. Eta ha zan arraina harrapatzea, sarerik ere ezin atera, ozta-ozta baino.

Hondartzara etorri eta saretik arrainak batzen hasi zanean, salto hemen eta salto han hasi ziran arrainak, eta arrantzaleak esan eutsen:

- Tonto alenak, hor ibili natxatzue zuei txilibitua jo ta jo eta ez dozue dantzarik egin nahi izan. Eta ni aspertu nazanean orain nahi dozue dantzan egin!
Orain zakura eta geldi hor!

- ALKARRIZKETA

- * Arrantzaleak zer hartu eban?
- * Non ipini zan arrantzalea?
- * Zer jotzen hasi zan?
- * Zertarako jotzen eban txilibitua?
- * Nor nekatu zan lehenago?
- * Non itxi eban txilibitua?
- * Zertan hasi jakozan arrainak hondartzan?
- * Azkenean nora sartu ebazan arrainak?

- HIZKUNTZA FUNTZIOAK LANTZEN

Arreta erakarri - Aizu, begira!
- Ikusi zer daukadan!
- Beitu!

Informazioa - Ene, zer daukazu?
eskatu - Aizu, zer daukazu hor?
- Zer da hori?
- Zer da hor daukazuna?
- Zer dozu?

Informazioa - Begira zer daukadan barruan.
emon - Politza barruan panpin bat daukat.

Aholkuak emon - Kontuz eta ez busti.
- Kontuz! Jausi barik.
- Kontuz! Urrinera ez joan.

- IPUINEKO ESPRESIOAK

- * Baina bai zera etorri!
- * Ozta-ozta baino.
- * Salto hemen eta salto han.
- * Tonto alenak.
- * Orain zakura eta geldi hor!
- * Beren kasa etorriko ziralakoan.

- IPUINEKO HIZTEGIA

Txilibitua	itsasertzeko	harkaitzetako baten
sarea	beren kasa	aspertu
arrantzara	ozta-ozta	